



## **2011-12 ESKOLA EGUTEGIA** **APLIKAZIO INFORMATIKORAKO JARRAIBIDEAK**

### **1. OHAR OROKORRAK**

#### **1.1. Hezkuntza Sailaren aplikazio informatikoen erabilerari buruzko oharrak**

- Aplikazioa ahalik eta hobekien bistartzeko, egokia da pantaila 1024 x 768 pixelen bidez konfiguratzea. (Mi PC-Kontrol-Panela-Pantaila-Konfigurazioa-1024x 768).
- F11 tekla sakatuz pantaila osoa ikusten da, ikuspegia hobetuz.
- Ordutegia sartzeko formatoa honakoa da: oo:mm(orduak: minutuak). Hala ere, ordu zehatzak izanez gero, zenbaki bakarra jartzea nahikoa da (Adib.: 8, 9, etab.). Saio bat hasten edo bukatzen den ordua errepikatzen baldin bada, sartutako ordua aukeratuko dugu, kurtsorearekin koloratuz. Jarraian, Ctrl +C teklak (kopiatu) sakatu, kurtsorea aukeratutako ordua eraman nahi dugun gelaxkan kokatu (tabuladore edo saguaren bidez) eta Ctrl + Vn (itsatsi) teklak sakatuko ditugu.

#### **1.2. Eskola-egutegiaren aplikaziori buruzko oharrak**

Ikastetxeek, orokorrean, maila bakoitzerako egutegi bat osatu beharko dute (a/ Haur eta Lehen Hezkuntza; b/ DBH; c/ Batxilergoa; d/ Lanbide Heziketa; e/ HHI; f/ Musika Arautua; g/ Musika ez Arautua; etab.)

Heziketa zikloetan ikasturte eta txanda bakoitzerako egutegi bat egingo da.

Egutegi bat egin ondoren, kopiatu ahal izango da. Kopia aldatu daitezke.

Egutegi bat egiteko, posibilitate batzuk har daitezke abiapuntutzat:

- **Bete-gabeko egutegi** batean oinarrituz, egutegi bat osatzea (jai ofizialak aldeztatik ezarrita dauzka).
- **Oinarrizko egutegi batean** oinarrituz, egutegi bat osatzea. (Bat dator lurralde eta maila bakoitzeko egutegi ofizialarekin).
- Aurreko beste ikasmila edo irakasmila batetik egutegi bat **kopiatzea**.



## 2. APLIKAZIORA SARTZEA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko aplikazioen "Atari Nagusia"tik sartuko da aplikaziora. Horretarako Hezkuntza Sailaren gainerako aplikazioetarako erabiltzen den ikastetxearen kodea erabiliko da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Departamento de Educación  
Universidades e Investigación  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**ATARI NAGUSIA**  
PORTAL DE ENTRADA

**Informazio publikoa**

- Aplikazioei buruzko informazio orokorra
  - Irakasleen ordutegi-taula
  - Ikastetxeetako datuak Inportatu/Esportatu
  - Matrikula Bakarra
    - Bete gabeko eskabide-orria
    - Erdi-maila
    - Goi-maila


Erabiltzailea egiaztatzea / Validación de usuario

Erabiltzailea / Usuario

Pasahitza / Contraseña

Onartu / Aceptar

"Antolakuntza Pedagogikoa" deituraren gain klik egin ondoren, egutegiaren irudiaren ere klik egingo dugu.





Sarrera pantailara sartuko gara.

Calendario Escolar  
Curso: 2007-2008

GLHBI ARETXABALETAK GLHBI (013255)  
ARETXABALETAK  
FPGM FPGS

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sarea  
Departamento de Educación  
Universidades e Investigación

ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Aplikazioak Ikastetxearen egutegia Okerren kontsulta Ibieria

**ESKOLA-EGUTEGIA**

Funtzionamendu-gida

**Aplikazioak software berezia instalatuta euki behar du**

- Oinarriko softwarea (Acrobat)
- Oinarriko Softw. (IE Explorer)

**Oharrak eta Berri berriak**

Gaiak	Arg. Data
Araba, Haur eta Lehen Hezkuntzarako Egunetegi Ofizialak	2007-06-03
Araba, Bigarren Hezkuntza, HHI eta Lhako egutegi Ofizialak	2007-06-03
Araba, Gainontzeko mailatarako Egunetegi Ofizialak	2007-06-03
Bizkaia eta Gipuzkoa, Haur eta Lehen Hezkuntzarako Egunetegi Ofizialak	2007-06-03
Bizkaia eta Gipuzkoa, Bigarren Hezkuntza, HHI eta Lhako egutegi Ofizialak	2007-06-03
Bizkaia eta Gipuzkoa, Gainontzeko mailatarako Egunetegi Ofizialak	2007-06-03

Aplikazio hau Internet Explorer 5erako prestatuta dago eta hurrengo bereizmenarako 1024x768 pixels.  
Ikastetxeetako Erabiltzailearen Laguntza Zentroaren (CAU) telefonoa 945016292

javascript:void(0); Intranet local

### 3. IKASTETXEKO EGUTEGIAK

#### Ikastetxearen egutegia

botoia sakatzen dugu:

- Iragazki-pantaila agertzen da.

Eskola-egutegia  
Kurtsoa: 2007-2008

GLHBI IURRETAK GLHBI (014950)  
IURRETAK  
BACH FPGM FPGS

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sarea  
Departamento de Educación  
Universidades e Investigación

ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO


Aplikazioak Ikastetxearen egutegia Okerren kontsulta Ibieria


Egutegiak, Iragazkia


Maila: .....

- Ikastetxeak honako hau egin dezake:



- Botoi berdea  : hautatzeko irizpideak aplikatzea (kasu honetan, irakas maila soilik) eta aldez aurretik sortutako egutegiaren zerrenda ikustea. Botoi hori soilik erabil daiteke ikastetxeak egutegiaren bat sortu eta gero bertara iristeko. (Kontsultarako edo aldaketarako)

- "Alta" botoia  : egutegi berri bat sartzeko.


- "Garbitu" botoia  : ikastetxeak semaforo berdea sakatu aurretik hautaturiko irizpideak ezabatzeko (kasu honetan irakasmaila besterik ez).

## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK

- Ikastetxeak ordutegi bera betetzen badu bai Haur Hezkuntzan bai Lehen Hezkuntzan, "Haur eta Lehen Hezkuntza" maila aukeratuko du, eta egutegi bakar bat osatuko du.
- Ordutegiak desberdinak izanez gero, "Haur Hezkuntza" maila aukeratuko da eta egutegi bat osatu. Ondoren "Lehen Hezkuntza" aukeratuko da, dagokion egutegia osatzeko, eta horretara, maila bakoitzeko egutegi bat osatuko da. (Maila bateko egutegia bestera kopiatu ahal izango da, ondoren ordutegia soilik aldatu ahal izateko).



"Alta" botoia sakatu ondoren:



Leiho zabalgarrian ikastetxeko maila irekiak soilik azalduko dira.

Maila bat hautatzen dugunean, beharrezko kasuetan honako hauek azalduko dira: txanda, kurtsua, espezialitatea edota ziklo mota.

Aurten, LHko mailak soilik dute kurtsuaren araberako bereizketa. Gainerakoetan "Maila" soilik ikusiko da.

Botoi berdea 

sakatzen badugu: honako pantaila honetara iristen gara:



Epemugak **Ordutegia** Jaiegunak

Hasierako egutegia:  Egutegia hutsik  
 Oinarrizko egutegia (Bat dator egutegi ofizialarekin)

(\*) Epe lektiboaren hasiera:  [06/09/2011-30/09/2011] (\*) Epe lektiboaren bukaera:  [01/06/2012-22/06/2012]

Iraileko lanaldi jarraituko azkeneko eguna:  (ee/hh/uuuu) [Epe lektiboaren hasiera-30/09/2011]

Ekaineko lanaldi jarraituko lehenengo eguna:  (ee/hh/uuuu) [01/06/2012-Epe lektiboaren bukaera]

**Jantokiaren hasiera-data:  [>=Epe lektiboaren hasiera] Jantokiaren bukaera-data:  [<=Epe lektiboaren bukaera]**

Oharrak:

## BERRIA:

**Zuzeneko kudeaketako eskola jantokia duten ikastetxe publikoek jantokiaren hasiera eta bukaera-data sartu behar izango dituzte aplikazioan.**

Hiru erlaintzetan banatzen da orri hau:

Epemugak **Ordutegia** Jaiegunak

- Epe-mugak → Klase-aldiak eta irakastaldiak eta [jantokiaren funtzionamendu-aldiak](#) adierazteko
- Ordutegia → Ordutegia duten mailentzat soilik (Haur eta Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta LH)
- Jaiegunak → Jaiegunak adierazten diren egutegia

Heziketa-ziklotan, HHI eta Batxilergo mailatan benetako eskolako egunen kopurua (HZZ eta Batxilergoan) edo irakasletza zuzenekoak (HHIn) kontatzeko asmoz, bi epe sartzea aurreikusi da. Bi epe hauen arteko denbora-tartean eta bigarren epearen ondorengoan **egun lektiboak** kontatzen dira, baina ez dira kontatzen **klase/egunak**. (Ikus Agindua eta eskola-egutegia egiteko Ebazpenak).

BACHILLERATO 012982-IES XABIER ZUBIRI-MANTEO BHI

Epemugak **Ordutegia** Jaiegunak

Hasierako egutegia:  Egutegia hutsik  
 Oinarrizko egutegia (Bat dator egutegi ofizialarekin)

(\*) Hasiera-data:  [07/09/2007-01/10/2007] (\*) Amaiera-data:  [20/06/2008-20/06/2008]

(\*) 1. ikasturtearen hasiera:  [07/09/2007-01/10/2007] (\*) 1. ikasturtearen amaiera:  [20/05/2008-20/05/2008]

(\*) 2. ikasturtearen hasiera:  [02/06/2008-02/06/2008] (\*) 2. ikasturtearen amaiera:  [11/06/2008-11/06/2008]

Oharrak:

Lehenengo lerroa (\*) Hasiera-data/(\*)Amaiera data 175 egun lektiboak kontatzeko da. Hurrengo bi lerroak klase-egun/irakasletza zuzeneko 160 egunak kontatzeko da.

**Oharrak** eremua erabil daiteke ikastetxeak argitu nahi dituen berezitasunak adierazteko.



Sartutako datuak gordetzeko pantailaren goian eta eskuin aldean dagoen botoia sakatu behar da. **Datuak behin bakarrik gordetzea aholkatzen da, hiru erlaintzetako datuak sartu ondoren** (gordetzen denean baliozkotze prozesu osoa abiarazten delako, eta horren ondorioz prozesua mantsotzen da).



**Oinarrizko egutegitik** abiaraztea gomendatzen da.

### 1. urratsa: epe-mugak

Egutegi berri baten altan, honako hau har daiteke oinarriztat:

Hasierako egutegia:  Egutegia hutsik

Oinarrizko egutegia (Bat dator egutegi ofizialarekin)

Egutegiaren kopia  (Jaiegunak barne)

Egutegi zuria (txantiloaren jaiegunak sartuta daude)

Oinarrizko egutegia (sartuta daude aldiak –hasiera- eta bukaera-datak- eta jaiegunak: egutegi ofizialarekin bat dator)

Horren araua (aldiak eta jaiegunak) betetzen duen ikastetxeko beste egutegi bat.

Beste egutegi batetik kopiatzerakoan , aldien datak beteko dira automatikoki, edozein aldaketa egiteko posibilitatea izanik.

Testu-kaxa bakoitzaren eskuinean laguntza gisa azaltzen da arauak baimendutako tartea.

Heziketa Zikloen egutegiak: Ikus agiri honen Eranskina.

### 2. urratsa: ordutegia



Ordutegiaren erlaintzari dagokion pantaila desberdina da, mailaren arabera.

Haur eta Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergorako ikastetxean bete beharreko lanaldia soilik zehaztu beharko da. Beharrezko kasuetan, lanaldi jarraituaren eta etendako lanaldiaren artean bereiz daiteke.

### 3. urratsa: jaiegunak

Azkeneko erlaintzari dagokion pantaila honetan jaiegunak azaltzen dira.

Beste erlaintze dagozkien pantailatan adierazitako informazioak azaltzen dira.

Jaiegun bat adierazteko honako hau egin behar dugu:

1. Zein jaiegun mota aukeratu.
2. Saguarekin adierazi zein diren aukeraturako motako jaieguntzat hartu nahi diren egunak.



Gelaxka garbitu

Okerreko kasuan, hautatuko dugu eta egutegian adieraziko dugu zein den aldatu nahi dugun data.

“Egun lektiboak/Klaseko egunak” eta “klaseko saioak” (mailen arabera) kontatzeko kontagailu bat jarri da. Aplikazioan sartutako datuak eta baimendutako gutxieneko egunen kopurua alderatzen dira. Hasiera batean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako 175 egun lektibo eta 1050 klaseko saioak aurkezten dira. Haur eta Lehen Hezkuntzan 175 egun lektibo eta 875 klase-orduak aurkezten dira.

Eskola-egunen (klasea ematen den egunen) eta iraileko edo ekaineko (mailaren arabera) lanaldi jarraituen hasiera- eta amaiera-datak aldatu nahi baditugu, “mugako datak” erlaintza erabiliko dugu.

Sartutako datuak gorde nahi baditugu, pantailako eskualdeko goiko zatian dagoen botoia sakatu beharko dugu.

Atera botoia sakatzen badugu, iragazkira itzultzen gara.

Iragazkitik, botoi berdea sakatuta, alde zurretik sartutako egutegiaren zerrendara iristen gara. Ikastetxearentzat lagungarria da, sartu dituen datuei buruzko xehetasunak ikus baititzake.

Egutegiaren xehetasuna	Eskola-egunak	Klase-egunak	Ordu lektiboak	Itxita
BATXILERGOA	173	158		✓
ERDI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA - 1.ELH	182	159		


Hemen honako hau egin dezakegu:

- Alta eragitea beste maila bateko datuak sartzeko.
- Dagoen egutegi bat ezabatzea (dagokion lerroko botoian klik eginez).
- Egutegiaren xehetasuna ikustea (“Egutegiaren xehetasuna zutabeko hiperestekan klik eginez”) → hiru erlaintzak dituen leihora nabigatzen dugu.




#### 4. IKASTETXEKO EGUTEGIEN BALIOZKOTZEA

“Ikastetxearen egutegiak” atalean esandakoaren arabera egutegiak txertatu ondoren (ikus jarraibide hauen 3. puntua), ikastetxeak baliozkotzea (EEDn bezala) abiarazi dezake. Prozesu honen hautatze-irizpide zehatzak urtea eta maila dira. Prozesua maila desberdinetarako abiaraz daiteke aldi berean.



Maila baten baliozkotzea zuzena bada, ikastetxeak itxi egin dezake (**itxiera** bola).


Inongo mailarik aukeratu gabe  sakatuz gero, sartutako maila guztien baliozkotzeari ekingo zaio.

Maila baten baliozkotzea zuzena ez bada, ikastetxeak honakoa egingo du:

1. Dauden okerrak ikastetxean bertan konpon badaitezke, zuzenduko dira eta baliozkotzea abiaraziko da berriz.
2. Dauden okerrak ikastetxean konponezinak izanez gero, harremanetan jarri beharko da erreferentzia-ikuskariarekin, okerrak konpontzen saiatzeko.

Hezkuntza ikuskariak, kasuan kasuko Lurralde Ordezkarria kontsultatu ondoren, behar bezala zurituak dauden “okerrak” edo arau-hausteak baliozkotzeko ditu.


Ikastetxeak oker horien onarpenaren egoera kontsultatu ahal izango du honako bola


honetan: 




## 5. OKERREN KONTSULTA

Lehenengo eta behin iragazki bat agertzen da.




Botoi berdea sakatuz , iragazkien aukeratutako irizpideak betetzen dituzten ikastetxeko egutegiaren oker guztiak ikusiko ditugu.





Ikastetxeak egutegiak grabatu ondoren, "Baliozkotua" eta "Oharrak" eremuak hutsik azalduko dira. Okerrak baimenduak izanez gero, Hezkuntza Ikuskaritzak osatuko ditu aipatutako eremu horiek.



Okerrak baliozkotu gisa agertzen direnean, Hezkuntza Ikuskariak egutegia itxi ahal izango du. Hala eta guztiz, ikastetxeak ikusten badu okerrak baliozkotuak izan direla, hark berak itxi ahal izango du egutegia, kontu izanik egutegian aldaketa berririk ez sartzen, zeren eta hala eginez gero, "baliozkotze-zain" egoerara itzuliko bailitzateke.

Une horrez geroztik bere egutegiaren proposamena inprimatu ahal izango da, eta bertan Lurralde Ordezkariek egindako oharrak agertu ahal izango dira.

## 6. EGUTEGIEN ITXIERA




bolan klik eginez, ikastetxeak maila bakoitzaren egoera bistaratu ahal izango du. Gerta daitezkeen egoerak honako hauek dira:

- Daturik gabe
- Baliozkotzeke
- Okerrekoa
- Zuzena
- Okerrekoa, baimenduna.

Maila zuzenak eta baimena duten okerrekoak soilik itxi ahal izango dira. Horietan botoi bat azalduko da gorriz ezkerrean.

Horretaz gainera ikastetxeak **OOG/EK bileraren data sartu behar du** aplikazioan, zeinetan egutegiaren proposamena onartu zen.





Ikastetxeak aipatutako data sartzen ez badu ezin izango du itxi egutegiaren proposamena baliozkotze egoera alde batera utzita.

Itxita dauden mailak sakatuta dagoen botoi berdea izango dute ezkerraldean.

Ikuskaritzak egin beharko du maila itxiaren berrirekitzea.

## 7. ZERRENDAK ("Inprimatu")

### a) Ikastetxeak betetako egutegiaren proposamena:

The screenshot shows a web browser window titled 'Calendario - Microsoft Internet Explorer'. The page is for 'Eskola-egutegia' (School Calendar) and displays a list of proposals. The header includes the logo of the Basque Government and the text 'GLHBI IURRETA GLHBI (014950) IURRETA BACH FPGM FPGS'. The main content area has a table with columns 'Egitura', 'Izena', and 'Erreferentzia'. The table lists several proposals, including 'CQ0100000 - ESKOLA-EGUTEGIA' and 'CQ0100000 - ZERRENDAK'. Below these, there are three rows of proposals with their respective codes and titles, each with a link to a document reference.

Egitura	Izena	Erreferentzia
CQ0000000	ESKOLA-EGUTEGIA	
CQ0100000	ZERRENDAK	
CQ0100001	JAIEGUNEKO PLANTILLEN ZERRENDA	pp31079
CQ0100011	EGUTEGI OFIZIALEKO ZERRENDA	pp31087
CQ0100021	IKASTETXEKO EGUTEGIEN ZERRENDA	pp31088

Ikastetxeak maila bateko egutegiaren proposamena osatu duenean, inprimatu ahal izango du.

**Egutegi irekia eta baliozkotu gabea:** Ezin da inprimatu

**Egutegi irekia eta baliozkotua:** Inprimatu ahal da. Informazio-balioa baino ez du. Ez da bidali behar Ikuskaritzara.

**Egutegi itxia:** Inprimatu ondoren, zuzendariak sinatu eta ikastetxeko zigilua duela. Hau ikastetxearen proposamena izango litzateke.

Ikastetxeko egutegiaren proposamena EEDn eta beste aplikazioetan egiten den moduan izango da, hau da: Aplikazioa / Zerrendak / Partikularra Inprimaki postontzia.

### b) Lurralde Hezkuntza Ordezkariek onartutako ikastetxearen egutegia:

2008-09 ikasturtez geroztik Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzek ez dute bidaliko ikastetxeetako egutegiak paperan.



Ikastetxeak bere proposamenaren egoera **Itxiera** bolan ikus ahal izango du.

Maia	Egoera
<input checked="" type="checkbox"/> HAUR HEZKUNTZA	ZUZENA (IKASTETXEKO EGUTEGIAREN ONARPENA)
<input checked="" type="checkbox"/> LEHEN HEZKUNTZA	EZ DA ZUZENA; BAIMENA DU (IKASTETXEKO EGUTEGIAREN ONARPENA)

Proposamenak Lurraldeko Hezkuntza Ikuskariek gainbegira eta onartu ondoren, maila bakoitzeko egutegia Itxia geratuz gero, "Zuzena" nahiz "Ez da zuzena; baimena du" egoeratan izanik, eskubiko aldean inprimagailu baten ikono bat agertuko da. Ikono hau sakatzean onartutako mailaren egutegi hori inprimatuko da, bertan dagokion Lurralde Ordezkaritzaren sinadura eta sigilua eramango dituela. Egutegi hau izango da argitaratu eta banatu beharko dena ikastetxeko bakoitzaren eskola-komunitatean.

## **HEZIKETA ZIKLOTARAKO ERANSKINA**

Lantokiko prestakuntzak egutegian duen eraginagatik, **ikastetxeak kurtso bakoitzerako egutegi bana egin behar du**, baina aplikazioak aukera ematen du egutegi erkidea duten kurtso guztienak batera osatzeko.

Gorritz eta (\*)-z markatutako eremuak derrigorrezkoak dira

(\*) Maila: ..... GOIMAILAKO LANBIDE HEZIKETA

(\*) Txanda: ..... Egunez


(\*) Kurtsoa: ..... 1.GLH

(\*) Ziklo-mota: ..... Denek

### **Heziketa Ziklo baten 1. kurtsoko egutegia**


Beste mailatako egutegien antzekoa da. (Jarraibide orokorrak jarrai).

### **Heziketa Ziklo baten 2. kurtsoko egutegia**

Egutegi berri bat osatu behar da. 1. kurtsoko datuak sartu eta grabatu ondoren, prozesua errepikatu behar da,  berririo sakatuz eta aurreko pantailako (\*) Kurtsoa eremuan "2 GLH" aukeratuz.




Ondorengo pantalla irekitzen da:



## 1. urratsa: epe-mugak



sakatuz ondorengo pantalla zabaltzen da:



“Egutegiaren kopia” aukera sartu da. Berau aukeratuz gero, aukeratutako jatorrizko egutegiaren epe-mugak eta jaiegunak ekarriko ditu.

### Oharra:

Aurrerago ikusiko den bezala, “Ordutegia” erlaintzari dagokion pantailan Lantegiko Prestakuntzarako jarritako amaiera-data eta pantaila honetan agertzen den (\*) Eskola egunen amaiera data desberdinak izan daitezke.

Oraingo pantaila honetan agertzen den data Ikastetxeko Egutegia inprimatzerakoan agertuko den data bera da. Hala ere, “Ordutegia” erlaintzari dagokion pantailan jarritako data (ikastetxeko egutegia inprimatuan agerian ez badago ere) aplikazioak zikloko ordu kopurua baieztatzeko erabiliko duen data izango da, ordea.



## 2. urratsa: ordutegia

“Ordutegia” erlaitzean klikatzean honako pantaila irekiko da:


Pantalla honek lau atal ditu:

- Ziklo motak.
- Ordutegi-multzoak.
- Ordutegia.
- Tarteak.

### Ziklo-motak

“Erabilgarriak” leihatilan ikastetxeko ziklo guztiak agertzen dira, agian horietako batzuk egutegi bera izateagatik multzokatu ahal izateko. “Aukeratutakoak” leihatilan ordutegi erkidea egingo zaien zikloak agertzen dira. Lehiatilen artean dauden gezien bidez nahi diren zikloak aukera daitezke bi zentzutan (bat, guztiak edo batzuk).

### Ordutegi-multzoak

Ordutegi berdina izango duten zikloen multzoak, aurreko urratsean aukeratu direnak, azaltzen dira. Atal honetan  ikonoak daude multzo berriak sartzeko edo lehendik zeudenak kentzeko.

Datuen sartze-lana erraztearren, kontagailu bat erantsi da, non ikusi ahal izango diren aplikazioan sartzen doazen kopuru hauek: alde batetik, ikastetxean ematen diren klase-saioen kopurua, eta bestetik, LTPn egiten diren orduen kopurua.

Kontagailu horrek zeroa erakusten du inongo agindurik ezean. Sartu diren kopuruak ikusi nahi badira, “Birkalkulatu” aukeran sakatu behar da.



## Ordutegia eta Tartekak

Multzo horietako bakoitza "n" denbora-tartez osatuta egongo da, eta denbora-tarte horiek kurtsoan dauden ordu-egitura desberdin hainbat izango dira.

Ikastetxeak denbora-tarte desberdinak azaldu beharko ditu, azken daten arabera definituz, tarte bakoitzean kontuan izanik zer egiten duten ikasleek:

- Ikastaldia ikastetxean soilik
- lantokiko prestakuntza soilik
- lantokiko prestakuntza eta moduloaren bat ikastetxean

### Adibidea:

Hasiera:  Amaiera:  [1. ikasturtearen hasiera-1. ikasturtearen amaiera]

Ikastetxe  LP  Biak

Ikastetxeak sartu behar duen ordutegiaren hasiera- eta amaiera-data sartuko du, denbora-tarte horretan jardura ikastetxean, lantegian edo bi lekutan egingo den azalduz.

Jardura ikastetxean egiten den denbora-tarteetan hasiera- eta amaiera-ordua, saio kopurua eta atsedenaldirako denbora adieraziko da.

Jardura lantegian egiten den denbora-tarteetan egunez eguneko ordu kopurua adieraziko da.

2011ko Maiatza